

EKONOMIA ITUNA ETA KUPOA



EKONOMIA ITUNAREN EREDUA ETA KUPOA KALKULATZEKO SISTEMA

Euskal Autonomia Erkidegoak Ekonomia Itunean oinarritzen den finantzaketa-erregimena erabiltzen du. Haren ezaugarri nagusia da haren zerga-sistema osatzen duten zergak biltzeko gaitasuna izatea, Estatuko gastuak finantzatzen lagunduz EAEk eskumenik ez duen arloetan.

Itun-sistemaren sakonean dagoen filosofia gainerako Autonomia Erkidegoetan erabiltzen den finantzaketa-sistemen ezberdina da oso. Araubide erkideko Autonomia Erkidegoek Estatuko diru-sarrera gehienak aurrekontuko transferentzia bidez edo zergak lagatzearen bidez eskuratzen dituzte. EAEk aldebakarreko arriskuaren printzipioarekin jarduten du. Hala, diru-sarrerak izateko berezko iturriak ditu eta, gainera, Estatuko gastua finantzatzen laguntzen du.

EKONOMIA ITUNA.

Ekonomia Itunaren bidez arautzen dira Estatuaren eta EAEn arteko zerga eta finantza arloko harreman bereziak. Konstituzioko lehen xedapen gehigarrian oinarritzen da, foru-lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzen baititu, foru-araubidearen

eguneratze orokorra aginduz. Halaber, Autonomia Estatutuko III. titulua ere hartzen da oinarriztat, Lurralde Historikoetako Erakunde eskudunek arautzeko duten gaitasuna aitortzen duena, horiek beren lurraldearen barnean berezko zerga-sistema mantendu, ezarri eta arautu dezaketela berretsiz.

Zergen gaineko foru-eskumen horren aitortzea funtsezko ezaugarria da EAEren kasuan. Horrela, Estatuaren eta EAEren artean zerga eta finantza arloko harremanak egokitu eta antolatu behar dira ezinbestean. Horretarako, Estatutuan bertan harreman horiek Ekonomia Itunaren bidez arautuko direla ezartzen da.

Orobat, Estatutuan xedatzen denez, elkartasunaren printzipio konstituzionalaren arabera aplikatuko da Itunaren araubidea, eta oinarrizko bi printzipiotan oinarrituko da bertako edukia: alde batetik, zergen arloko harremanei dagokiona eta, beste alde batetik, finantza arloko harremanei dagokiona. Horrenbestez, aitortzen da lurralde historikoetako erakunde eskudunek beren lurraldearen barnean zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu dezaketela, betiere aintzat harturik, bai Estatuko zerga-egitura orokorra, bai koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako ekonomia-itunak berak jasotzen dituen arauak, baita Autonomia Erkidegoaren barruan helburu horietarako Eusko Legebiltzarrak eman ditzaketen arauak ere.

Gainera, foru-aldundi bakoitzak, bere Lurralde Historikoaren barnean, zerga guztiak ordainarazi, kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeko gaitasuna ezartzen da, salbuetsita Aduanen Errentan sartzen direnak eta Monopolio Fiskalen bidez biltzen direnak,

betiere Estatuarekin eta haren goi-ikuskaritzarekin kolaboratuta. Finean, Lurralde Historiko bakoitzean eskumena duten erakundeek zerga arloan arautzeko eta kudeatzeko duten gaitasuna aitortzen da, fase guztietan, koordinazioari, harmonizazioari eta lankidetzak fiskalari buruzko arauak errespetatuz.

Bestalde, Estatuari ordaindu beharreko kupoaren bidez antolatzen dira finantza arloko harremanak. Horrela, Estatutuan berresten denez, EAEk Estuari egingo dion ekarpena guztizko kupo bat izango da, lurralde bakoitzari dagozkionaz osatua, Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko Estatuaren karga guztietarako ekarpen gisa. Halaber, adierazten da Estatuaren eta EAEn arteko batzorde paritario batek erabakiko duela guztizko kupoaren zenbatekoa eta Lurralde Historiko bakoitzari dagokiona. Horrela adostutako kupoa Legez onartu beharko da.

1878ko otsailaren 28ko Errege Dekretua jotzen da EAEko lehen Ekonomia Ituntzat, eta zortzi urteko indarraldia izan zuen. Hain zuzen ere, 1876ko uztailaren 21eko Legearen eta 1877ko azaroaren 13ko Dekretuaren ondotik irekitako negoziazio-prozesuaren ondorio izan zen; izan ere, foruak indargabetu zituen lege horrek, eta kontzertuaren araubide ekonomikorako oinarriak finkatu bigarrenak, Lurralde Historiko bakoitzak urte hartan Estuari ordaintzeko kuota orokorrak zehazteko. Zortzi urtez luzatutako lehenengo errege-dekretu horren ondoren, 1887ko Aurrekontuen Lege Orokorraren 14. artikulua bidez onartutakoa iritsi zen, beste zortzi urteko indarraldia izan zuena, eta ondoren etorri ziren 1894ko otsailaren 1eko Ituna, 1906ko abenduaren 13koa eta 1925eko ekainaren 9koa, 25 urteko indarraldiarekin.

Haatik, 1937an Francoren diktadura-aldian, ondoriorik gabe geratu zen Bizkaian eta Gipuzkoan itundutako zerga-araubidea. Hala, seigarren Ekonomia Ituna, 1952ko otsailaren 28koa, Arabarako soilik eman zen. Itun horren ondoren, jadanik trantsizio politikoan, 1976ko azaroaren 26koa iritsi zen.

1978ko Konstituzioa onartuta eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez EA Eren Autonomia Estatutua onetsi ondoren, maiatzaren 13ko 12/1981 Legea adostu zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituna onartzekoa, eta 20 urteko indarraldia izan zuen.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez, indarrean den Ekonomia Ituna onartu zen, izaera mugagabearekin.

Ituna, Autonomia Estatutuarekin bat etorriz, bi esparru handitan egituratzen da:

- Zerga arlokoa. Esparru horretan zergei buruzko alderdiak jasotzen dira, zerga irudi ezberdinen inguruko adostasuna finkatuz. Funtsean, bi konexio-puntu finkatzen dira, Foru Ogasunek eta Estatuko Ogasunak araei eta kudeaketari dagokienez dituzten eskumenak zedarritzeko.
- Finantza arlokoa. Kupoa eta finantza-harremanak hartzen dituen esparrua da, eta bi sekzio baitaratzen ditu: arau orokorrak eta kupoa zehazteko metodologia. EAEk, eskuratu gabeko eskumenengatik, Estatuko karga orokorrei erantzuteko

bere ekarpena egiteko modua finkatzen da. Berezitasun hori Estatuari ordaintzeko kupoarekin ebazten da.

Itunaren Legean aurreikusten denez, ezinbestekoa da Administrazioen arteko akordio baterakoa hura aldatzeko komenigarritzat jotzen duten arloetan eta zergen adostasunean eragina duten Estatuko zerga-sistemaren aldaketen arabera hura egokitzeko. Indarreko Itunean indartu egiten da arauzko eskumenen banaketan aldaketa ematen denean hura egokitzeko premia edo zerga modu berriak edo konturako ordainketak sortzekoa, aldaketa horiek zeharkako zergen eragina dutenean.

2002ko Itunean, era berean, Batzordeen eta Arbitraje Batzordeen inguruko araudia barneratzen da. Modu horretan, Administrazioen arteko lankidetzaren printzipioa azpimarratzen da, eta indartu egiten dira Ekonomia Itunaren aplikazioan segurtasun juridiko handiagoa lortzera bideratutako prozedurak.

Ekonomia Itunaren Printzipioak.

Ekonomia Itunean ezartzen denez, Estatuaren eta EAEn arteko finantza arloko harremanak printzipio orokor hauen arabera arautuko dira:

- EAEko erakundeek autonomia fiskal eta finantzarioa beren eskumenak garatu eta gauzatzeko.

- Elkartasunaren errespetua, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan aurreikusitako moduan.
- Koordinazioa eta lankidetza Estatuarekin, aurrekontu-egonkortasunari dagokionez.
- EAEren ekarpena Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko Estatuaren kargetan, Ekonomia Itunean zehaztutako moduan.
- Estatuak une oro Tokiko Entitateei dagokienez gauzatzen dituen finantza arloko tutoretzarako eskumenak EAEko Erakunde eskudunen ardura izango dira. Horrek ez du esanahi, inolaz ere, EAEko Tokiko Entitateek araubide erkidekoek baino autonomia gutxiago dutenik.

Horrek guztiorrek aurrerapausoa dakar Ekonomia Itunak duen izaera orokorra aitortzeari dagokionez, Estatuaren eta EAEren arteko finantza arloko harremanen eremuan.

Itun-sistemaren elkartasuna.

Aurrez adierazi den moduan, Estatutuan xedatzen da Itunaren araubidea elkartasunaren printzipio konstituzionalaren arabera aplikatuko dela. Printzipio hori Itunean jasotzen da, Estatuaren eta EAEren arteko finantza arloko harremana arautzeko printzipio orokorren artean.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga-araubidea beren lurraldearen barnean mantendu, ezarri eta arautzeko gaitasuna, Estatuko zerga-egitura orokorraren, koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako ekonomia-itunak berak jasotzen dituen arauen eta Autonomia Erkidegoaren baitan helburu horietarako Eusko Legebiltzarrak eman ditzakeenen baitakoa da.

Aldebakarreko arriskua da Itunaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Itunaren kudeaketatik eratorritako emaitzak, onak zein txarrak, EAERI soilik dagozkio. EAEk erantzuna eman behar dio Estatuari egin beharreko ekarpenari; ez, baina, EAEn bildutako diru-sarreraren arabera, baizik eta eskuratu gabeko kargen ondorioz. Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetako udalek eta foru aldundiek, eta Eusko Jaurlaritzak partekatzen dute, barnean, arrisku hori. Horrenbestez, EAEko administrazioak solidarioak dira elkarren artean Estatuari ordaintzeko Kupoari dagokionez.

Bestalde, Espainiako sistema instituzionalak Autonomia Erkidegoen arteko elkartasuna jorratzeko mekanismo bat erabiltzen du, Konstituzioan ezarritakoarekin bat etorriz. Lurralde arteko Konpentsazio Funtza da mekanismo hori. Horretarako, Estatuko Aurrekontu Orokorretan hornitzen da urtero funts hori, gutxien garatutako lurraldeen artean banatze aldera. Lurralde arteko Konpentsazio Funtza gure Autonomia Erkidegoak eskuratu gabeko karga denez, Euskal Autonomia Erkidegoa zergadun garbia da Gorte Nagusietan onartutako aurrekontu orokorren egozpen-indizea aplikatuta lortutako zenbatekoari dagokionez.

Gainera, Ekonomia Itunaren arabera zehazten da Estatuak Autonomia Erkidego honetan gauzatzen jarraitzen duen eskumen guztien truke Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuari egin beharreko ekarpena, bere errenta erlatiboa aintzat hartuta. Haatik, Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duen gastu erlatiboa zehazteko irizpide eta parametroek gure ekarpenetik oso behera kokatzen gastu hori.

KUPOAREN KONTZEPTUA ETA METODOLOGIA.

EAEko Autonomia Estatutuan xedatzen denez, Estatuaren eta EAERen arteko zerga arloko harremanak Ekonomia Ituneko foru-sistema tradizionalaren arabera arautuko dira, eta kupoaren egungo kontzeptua definitzen da aipatu Estatutuan. Horrela, Estatutuan berresten denez, EAEk Estatuari egingo dion ekarpena guztizko kupo bat izango da, Autonomia Erkidegoak eskuratu gabeko Estatuaren karga guztietarako ekarpen gisa. Halaber, kupo hori zehazteko batzorde misto paritario bat eratzea aurreikusten da, EAEko eta Estatuko ordezkariak osatua. Batzorde misto horrek adostutako kupoak Legez onartu behar dira.

Ekonomia Itunean Autonomia Estatutuan bezalaxe definitzen da kupoak: EAEk Estatuari egingo dion ekarpena guztizko kupo bat izango da, lurralde bakoitzari dagozkionaz osatuta, Autonomia Erkidegoak eskuratu gabeko Estatuaren karga guztietarako ekarpen gisa, arau orokorrak garatuz eta, era berean, kupo hori zehazteko metodologia garatuz.

Halaber, Itunean ezartzen denez, Gorte Nagusietan bozkatutako Legearen bidez eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoarekin aurretiko akordioz, bosturtekoan izango den kupoak zehazteko metodologia zehaztuko da eta, era berean, abiaburu-urteari dagokion kupoak onartuko dira. Hurrengo urteetako kupoak Bosturteko Legean barneratzen den metodologia aplikatuz eguneratzen dira, eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onartzen du.

Lege horren bidez aukera izango da kupoa zehazteko metodologiako printzipioak aldatzeko inguruabarren eta metodologia horren aplikazioan izandako esperientziaren ondorioz gomendagarria denean, Itun-sistemaren printzipio orokorrak errealitate ekonomikoaren bilakaerara egokitzea bermatuz.

Orobat, EAEk eskuratu gabeko Estatuaren kargak definitzen dira, Autonomia Erkidegoak modu eraginkorren gauzatu ez dituen eskumentzat zehaztuta.

Eskuratu gabeko karga horien zenbateko osoa zehazteko, honako kenketa hau aplikatu behar zaio Estatuaren Aurrekontuko gastu guztiari: Autonomia Erkidegoak, estatu mailan, eskuratutako eskumenei dagokien aurrekontuaren diru-izendapen osoa, dagozkien dekretuetan ezarritako eskualdatze-egunetik aurrera.

Besteak beste, eskuratu gabeko karga modura zehazten dira honako hauek: Estatuaren Aurrekontu Orokorretan Lurralde arteko Konpentsazio Funtsei zuzendutako diru kopuruak; Estatuak herri-erakundeek ematen dizkien transferentziak edo diru-laguntzak, baldin eta erakunde horiek dituzten eskumenak ez baditu Euskal Autonomia Erkidegoak eskuratu; eta Estatuaren zorren interesak eta amortizazio-kuotak.

Lurralde Historikoei eskuratu gabeko kargei dagozkien zatia egozteko egozpen-indizeak aplikatzen dira, funtsean, Lurralde Historikoen errenta erlatiboaren arabera zehazten direnak. Indize horiek Kupoaren Legean adierazten dira, eta Legea indarrean den bitartean aplikatuko dira.

Bestalde, Balio Erantsiaren gaineko Zergen bidez eta Zerga Berezien bidez (Alkohola eta Alkoholetik datozen Edariak, Tarteko Produktuak, Garagardoa, Hidrokarburoak eta Tabakoa) biltzen den zenbatekoaren egozpena zehazte aldera, EAEk duen biltze-gaitasunaren indizearen eta kontsumo-indizearen arteko doikuntzarako mekanismoak ezartzen dira zerga bakoitzerako.

Halaber, zeharkako egozpena hobetzeko doikuntza bat jasotzen da. Horrela, legean doikuntzarako beste mekanismo batzuk finka daitezke EAERI eta Estatuko gainerako lurraldeei egotz dakizkiokeen diru-sarrera publikoen estimazioa hobetzeko.

Adierazi behar da kupoan aplikatzeko konpentsazioak kontzeptu hauen arabera burutzen direla:

- Itundu gabeko zergen zati egozgarria.
- Tributu-izaera ez duten aurrekontuko diru-sarreraren zati egozgarria.
- Estatuaren Aurrekontu Orokorrek duten defizitaren zati egozgarria. Superabita izanez gero, kontrako moduan jardungo da.

Halaber, Lurralde Historiko bakoitzaren Kupoan konpentsatu egingo da Gizarte Segurantzako osasun arloan eta gizarte-zerbitzuen arloan EAERI transferitu zaizkion eginkizunak eta zerbitzuak finantzatzeko sarreretatik EAERI egotzi behar zaion zatia. Sarrera

horiek, 2002ko Ituna indarrean jarri aurretik, ordaindu egiten zitzaizkion EAERI Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren transferentziaren bitartez.

Modu berean, Itunean eskuratutako eskumenen bariazioaren ondorioz behin-behineko kupoaren gainean izandako eraginak barneratzen dira.

Itunean zehazten denez, Estatuko Aurrekontu Orokorretan ekitaldi bakoitzerako barneratzen diren zenbatekoen arabera behin-behineko ezarritako kupoa eta konpentsazioak likidatu egingo dira dagokion ekitaldia amaitu ondotik.

Itunaren Legean, era berean, baterako finantzaketa aurreikusten da, beren zenbateko, balio estrategiko edo interes orokorraren ondorioz, beste lurralde batzuetan eragiten duten inbertsioetan eta egoera berezietan. Kupoan izango duten eragina kasu bakoitzean komeni dena izango da.

Kupoaren metodologia, eskuratu gabeko kargak eta egozpen-indizea.

Kupoaren gaineko legeen bidez epealdi bakoitzean aplikatzeko metodologia ezarri da, Ekonomia Itunean, oro har, ezarritako oinarriak jasoz. Metodologia horren arabera, bosturteko bakoitzeko abiaburu-urteari dagokion kupoa kalkulatu da, eta gainerako urteetarako eguneratu egiten da eguneratze-indize bat aplikatuz. Indize hori honela lortzen da: Autonomia Erkidegoei lagatako zergak

alde batera utzita, itundutako zerga bakoitzeko diru-sarreraren igoera (Estatuaren Diru-sarreraren Aurrekontuaren I. eta II. Kapituluetan agertuko dira), zati kupoari eta abiaburu-urteari dagokion ekitaldia.

Kupoak automatikoki zehazteko orduan, salbuespen nagusi bat dago, eskumen berriak eskuratzeak kupoan eragindako ondorioak, hain zuzen.

Kupoen Legeetan, era berean, behin-behineko kupoen likidazioa eta horien behin betiko kalkulua aurreikusten da, eguneratzean erabilitako aldaeren balio errealak ezagututakoan.

Halaber, Kupoen Legeetan une bakoitzean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoriozko bilketaren doikuntzan eta Fabrikazioko Zerga Berezien ondoriozko bilketaren doikuntzetan aplikatzeko parametroak jaso izan dira.

EAEko kupo zehazteko metodologia onartzen duen 29/2007 Legean garatzen da Ekonomia Itunaren edukia. Kupo kalkulatzeko metodologiari dagokionez, aurreko sistematikari eusten zaio, zeina abiaburu-urteko kupo zehaztean baitatza. Horretarako, egozpen-indizea aplikatzen zaio eskuratu gabeko kargen guztizko zenbatekoari, eta dagozkion doikuntza eta konpentsazioak egiten dira, eta, ondoren, hurrengo ekitaldietarako eguneratu.

Kupoaren Legean Ekonomia Itunaren edukia jasotzen da, eta, bertan zehazten denez, Autonomia Erkidegoak modu eraginkorrean gauzatu ez dituen eskumenei dagozkie eskuratu gabeko kargak. Horien zenbatekoa zehazteko, honako kenketa hau aplikatu behar

zaio Estatuaren Aurrekontuko gastu guztiari: EAEk eskuratutako eskumenei dagokien aurrekontuaren diru-izendapen osoa edo eskuratutako kargena, estatu mailan balioetsita.

Bi zenbatekoen arteko aldea izango da EAEk eskuratu gabeko kargen emaitza; alegia, kupo likidoa zehazteko kalkuluaren oinarria.

Eskuratu gabeko kargei dagokien zatia Lurralde Historikoei esleitzeko egozpen-indizea aplikatuko da, Lurralde Historikoek Estatuaren aldean duten errentaren arabera zehaztuta eta % 6,24koa izanik egozpen-indizea.

Doikuntzak eta konpentsazioak.

Doikuntzen helburua da zerga zuzen edo zeharkako ondorizko diru-sarreraren egozpenak hobetzea. Horrela, hurrengoak gauzatzen dira:

- Estatuko Administrazioak bere funtzionarioei ordaindutako ordainsariei dagozkien atxikipenen ondorizkoak.
- Erakunde Publikoek jaulkitako zor eta jesapenetako interes eta gainerako kontraprestazioen ondorizkoak.
- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorizkoak.
- Fabrikazioko Zerga Berezien ondorizkoak.

Estatuko Aurrekontu Orokorretan, Estatuko Ogasunari dagozkion diru-sarrereren kontzeptuak soilik barneratzen dira; ez, beraz, Foru Ogasunek bildu ez dituztenak. Horren ondorioz, Estatuko Gastuen Aurrekontuaren barruan eskuratu gabeko kargen gainean zehazten denez kupoa, beharrezkoa da itundu gabeko diru-sarrerei dagozkien berezko konpentsazioak gauzatzea.

Kupoaren Legean Ekonomia Itunean xedaturikoa jasotzen da, non konpentsazioen ondorioz kentzekoak diren kontzeptuak zehazten baitira. Zenbatekoa zehazteko, egozpen-indizea aplikatzen da:

- a) Itundu gabeko zergen zati egozgarria.
- b) Izaera ez tributariora duten aurrekontuko diru-sarrereren zati egozgarria.
- c) Estatuaren Aurrekontu Orokorrek duten defizitaren zati egozgarria.

Halaber, Gizarte Segurantzako osasun arloan eta gizarte-zerbitzuen arloan EAERI transferitu zaizkion eginkizunak eta zerbitzuak finantzatzeko diren sarreretatik Ekonomia Itunean ezarritako konpentsazioa jasotzen da. Sarrera horiek, 2002. urtearen aurretik, ordaindu egiten zitzaizkion EAERI, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren transferentziaren bitartez.

Orobat, kupoan konpentsatzekoa da Arabako Foru Aldundiaren aldeko zenbatekoa, Ekonomia Itunaren Laugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

Kupo likidoa eta doikuntzak zeharkako zergapetzean.

Kupo likidoa horrela kalkulatu da: egozpen-indizea aplikatuta, eskuratu gabeko kargei dagozkien aurrez adierazitako a), b) eta c) konpentsazioak kenduz.

Behin kupo likidoa zehaztuta, aurrez aipaturiko lerroaldeetan adierazitako konpentsazioen zenbatekoan kenduko da.

Hurrengo urteetarako eguneratze-indize bat aplikatzen zaio abiaburu-urtearen kupo likidoari. Horrela lortzen da indize hori: Autonomia Erkidegoei osorik lagatako zergak alde batera utzita, itundutako zergen ondoriozko diru-sarreraren aurreikuspenean izandako igoera, Estatuaren Diru-sarreraren Aurrekontuaren I. eta II. Kapituluetan jasotakoa, kupoari eta bosturtekoaren abiaburu-urteari dagokion ekitaldiarekin zatituta.

Modu berean jarduten da abiaburu-urtearen ondorengo bosturteko urteetan, osasun- eta gizarte-zerbitzuen finantzazioaren zatiari dagokion konpentsazioarekin -zerbitzu horiek Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren transferentziaren bitartez jasotzen ziren 2002. urtearen aurretik-.

Hurrengo ekitaldietako kupoetarako aintzat hartu beharko da zer eragin izan duen kupoaren gainean eskumen berriak eskuratzeak:

- Hala, abiaburu-urtearen ondorengo edozein ekitalditan Autonomia Erkidegoak eskumen berriak jasotzen baditu, berrikusi egingo da abiaburu-urteko kupo likidoa. Kupo likido horri zenbateko zehatz bat kenduko zaio; hain zuzen ere, eskualdaketa egin den ekitaldiko estatu mailako urteko kostu osoari, abiaburu-urteko eguneratze-indizearekin zatituta, egozpen-indizea aplikatu ondoren lortutako zenbatekoa.
- Horrela berrikusitako abiaburu-urtearen kupo likido hori erabiliko da eskualdaketa dagokion ekitaldiko kupo zehazteko, eskualdatze-eguna kontuan hartuta, eta hurrengo ekitaldietarako ere bai.
- Deskribatutako mekanismoa alderantziz aplikatuko da, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoak bere eginda dituen eskumenak edukitzeari uzten badio.

Kupoaren legeak ezartzen duenez, edozein urtetan, Estatuak legegintzako neurrietatik, interes orokorretik edo erakundeen arteko akordioetatik eratorritako finantzaketa arloko konpromiso gehiago hartzen edo eskuratzen baditu Autonomia Erkidegoek bete beharreko arloetan, EAERI dagokion parte-hartze finantzarioa aztertu eta zehaztuko du Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak.

Halaber, legean aurreikusten denez, "Estatuaren zergak lagatzeko erregimena erreformatuz gero edo Estatuko Aurrekontu Orokorrak nabarmen aldatuz gero, Autonomia Erkidegoen edo Toki Erakundeen finantzaketa-sistema erreformatzearen ondorioz,

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren batzartu egingo da, bosturtekoaren oinarritzko urtearen kupo likidoa edo/eta horren eguneratze-indizea berrikusi behar diren aztertzeko eta, hala badagokio, horiek zehazteko.

Behin-behineko kupoak eguneratze-indizearen balio erreala aplikatuz likidatuko dira behin betiko, Estatuak kupo likidoari eta abiaburu-urteari dagokion ekitaldian egiaz eskuratutako diru-bilketa likidoa ezagututakoan. Salbuespen modura, hauxe har daiteke abiaburu-urtearen kupo likidoa behin betiko likidatzeko: Estatuak abiaburu-urtean egiaz eskuratu duen diru-bilketa likidoari eguneratze-indizea aplikatuz ateratzen den benetako balioa, Estatuaren Diru-sarreraren Aurrekontuan ekitaldi berean agertzen den diru-bilketaren aurreikuspenarekin alderatuta.

Zeharkako zergen doikuntzak.

Ekonomia Itunak zeharkako zergen doikuntzarako mekanismo bat finkatzen du biltzeko gaitasunaren indizearen eta kontsumo-indizearen artean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Fabrikazio Zerga Berezien kasuan (Alkohola eta Alkoholetik datozen Edariak, Tarteko Produktuak, Garagardoa, Hidrokarburoak eta Tabakoa).

Balio Erantsiaren gaineko zergaren kasuan, % 6,875 indizea ezartzen da kupoaren metodologia-legean doikuntzarako lehen osagai modura, zeina EAEko BEZaren kontsumo erlatiboari baitagokio, aduanetan bildutakoa egindako inportazioen ordainetan.

Zerga horretan doikuntzarako legezko bigarren osagaia, aurreko eragiketen ondoriozko diru-bilketei dagokiona, honela zehazten da: baldin eta EAeko diru-bilketa % 5,765 handiago bada, Estatuak, aduanak kenduta, lortzen duen guztizkoa baino: lurralde komunaren benetako diru-bilketaren % 1,110 zati % 94,235; eta portzentaje hori baino txikiagoa bada: EAeko benetako diru-bilketaren % 1,110 zati % 5,765.

Fabrikazioko Zerga Berezien doikuntzarako mekanismoaren kasuan, BEZean erabilitako eskema errepikatzen da; hau da, zerga bakoitzari egotz dakiokeen kontsumo-indizearen eta biltzeko gaitasunaren arabera, berezitasun batekin: hasieran finkaturiko parametroak zuzendu egingo dira, baldin eta benetako datuen eta datu teorikoen arteko aldea % 10 baino handiagoa bada Alkohol eta Alkoholetik datozen Edarien, Tarteko Produktuen eta Garagardoen Zergen kasuan eta % 7 baino handiagoa Hidrokarburoen Zergaren kasuan, dagozkien mugen barnean egon daitezzen parametro berriak.



SISTEMAREN FINANTZA ARLOKO ALDERDIAK.

Jarraian, EAerako Ekonomia Itunaren sistemako finantza arloko alderdiak aurkezten dira:

Alde batetik, 2007-2014 epealdiko ekitaldietako itundutako zergen ondoriozko diru-bilketak:

RECAUDACIÓN DE LAS DIPUTACIONES FORALES POR TRIBUTOS CONCERTADOS / ITUNDUTAKO ZERGENGATIK FORU ALDUDIEN DIRU-BILKETA									
(en euros)	EAE/CAPV 2007	EAE/CAPV 2008	EAE/CAPV 2009	EAE/CAPV 2010	EAE/CAPV 2011	EAE/CAPV 2012	EAE/CAPV 2013	EAE/CAPV 2014	(eurotan)
IMPUESTOS DIRECTOS									ZUZENAKO ZERGAK
Impto. s/Renta Personas Físicas	4.266.303.914	4.458.237.359	3.917.693.008	4.065.867.906	4.321.226.044	4.329.194.534	4.264.991.086	4.390.204.980	Pertsona Fisikoen Errentaren g/Zerga
Impto. s/Sociedades	2.034.170.891	1.692.232.730	1.231.686.376	987.056.272	1.160.258.730	1.131.784.214	1.216.936.814	1.159.223.417	Sozietateen g/Zerga
Impto. s/Renta No Residentes	175.801.433	187.571.979	113.634.424	131.328.151	82.098.824	32.786.656	43.134.650	9.592.751	Egoitzadunak Ez Diren Errentaren
Impto. s/Sucesiones y Donaciones	76.164.430	81.829.088	80.099.371	70.541.057	77.144.654	89.531.552	105.416.519	112.358.171	Oinordekotasunen eta Dohaintzen g/Zerga
Is/Patrimonio/Riqueza y Grandes Fortunas	154.296.729	181.309.001	49.644.644	3.641.405	3.431.806	115.490.013	138.076.338	152.455.727	Ondare/Aberastasun eta Fortuna Handien g.Z
Is/Depósitos en las Entidades de Crédito								12.298.543	Kreditu Erakundeetako gordailuen g.Z
Is/Producción de energía eléctrica							24.508.500	28.216.732	Energia elektrikoaren ekoizpenaren g.Z
Total Impuestos Directos	6.706.737.397	6.601.180.157	5.392.757.823	5.258.434.791	5.644.160.058	5.698.786.969	5.793.063.907	5.864.350.321	Zuzeneko Zergak. Guztira
IMPUESTOS INDIRECTOS									ZEHARKAKO ZERGAK
IVA	4.837.429.105	4.265.486.024	3.528.205.459	4.515.199.433	4.097.367.238	4.038.258.455	4.278.687.050	4.791.671.365	Balio Erantsien g/ Z
Impto. s/Transmisiones Patrimoniales	372.128.128	185.061.727	152.235.836	194.788.098	98.531.350	79.899.345	71.888.769	90.233.951	Ondare-eskuakdaketen g/Zerga
Impto. s/Actos Jurídicos Documentados	134.866.575	115.543.901	95.205.961	80.944.553	58.475.222	41.308.010	38.466.360	36.599.539	Egintza Juridiko Dokumentuen g/Zerga
I.E. s/Determinados Medios de Transporte	77.001.313	49.197.033	37.149.887	34.339.318	24.752.515	17.349.523	13.645.056	14.912.966	Zenbait Garraibideren g/Z.B.
I.I.E.E. Fabricación:									Fabrikazio Zerga Berezak
Alcohol, Derivadas e Intermedios	61.324.631	64.176.193	60.099.857	60.241.800	58.541.127	49.811.488	47.742.200	48.838.787	Alkohola, Eratoriak eta Bitartekoak
Hidrocarburos	857.649.625	850.540.598	791.902.368	776.332.588	727.405.350	698.975.089	851.267.104	783.662.040	Hidrokarbonoak
Labores Tabaco	387.845.299	364.108.881	415.764.299	426.152.584	424.278.932	439.610.427	352.068.928	418.595.859	Tabako-motak
Cerveza	19.215.574	22.324.157	22.147.732	23.171.458	22.174.045	20.603.564	21.111.764	14.882.784	Garagardoa
Electricidad	68.106.850	72.517.450	71.335.890	95.030.080	89.312.104	91.527.412	87.284.906	73.036.240	Elektrizitatea
Impto. s/Primas de Seguros	78.121.305	77.140.732	72.920.712	76.048.188	77.383.433	73.818.372	71.018.931	70.215.961	Aseguru-primen g/Zerga
Impto. s/Actividades del juego								7.674.396	Joku jardueraren g/Zerga
Impto. s/Gases fluorados de efecto invernadero								821.009	Berotelegi-efektuko gas fluordunen g/Zerga
Impuestos extinguidos									iraungielako zergak
IVMDH	51.957.356	53.068.071	51.436.378	49.265.927	48.350.265	48.567.076	12.268.492	201.494	Hidrokarbonoen Txikizkako Salmenten g/ Zerga
Otros extinguidos	1.273.156	165.307	260	135	9.107		48	96.144	Beste iraungielako zergak
Total Impuestos Indirectos	6.946.919.017	6.119.330.074	5.298.404.639	6.331.514.162	5.726.580.688	5.599.728.761	5.845.449.628	6.351.442.535	Zeharkako Zergak. Guztira
TASAS Y OTROS INGRESOS									TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK
Tasa de Juego	68.738.160	63.252.554	58.728.352	58.793.823	54.099.987	49.101.651	48.734.690	46.654.969	Jokoaren g/Tasa
Recargos, Demora y Sanciones	49.728.178	50.436.031	42.185.957	51.264.456	56.071.959	60.606.148	64.867.715	57.315.090	Gainordainak, Berandutzea eta Zigorak
Total Tasas y otros ingresos	118.466.338	113.688.585	100.914.309	110.058.279	110.171.946	109.707.799	113.602.405	103.970.059	Tasak eta best. sarrerak Guztira
TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	13.772.122.752	12.834.198.816	10.792.076.771	11.700.007.232	11.480.912.692	11.408.223.529	11.752.115.940	12.319.762.915	ITUNDUTAKO ZERGAK. GUZTIRA

Beste alde batetik, 2007-2014 epealdiko ekitaldietako behin betiko kupo likidoa, Eranskinean zerrendatzen diren eskumenen eskualdatzeak kontuan hartuta:

**BEHIN BETIKO KUPO LIKIDOAK / CUPOS LÍQUIDOS DEFINITIVOS
2007-2014 (*)**

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
KUPO LIKIDOA (eskumen berriengatik berrik.) CUPO LÍQUIDO (rev nuevas competencias)	1.793.658	1.364.472	929.679	1.280.997	559.463	504.900	810.172	885.635
Metodologiaren 6.Bi artik. Komp. Compensaciones art. 6.2 Metodología de Cupo	-89.334	-67.958	-49.038	-67.569	-53.298	-45.400	-59.114	-62.065
Kupoari buruzko Metodologiaren 3. Xed. gehigarria Disposición Adicional Tercera Metodología de Cupo	-108.069	-123.624	-159.557	-155.458	-53.767	-18.461	-12.615	-9.496
Kupoari buruzko Metodologiaren Xed. Iragankor bakarra Disposición Transitoria Única Metodología de Cupo	3.243							
Arabako konpentsazioak Compensaciones Álava	-3.824	-4.015	-4.216	-4.427	-4.648	-4.880	-5.124	-5.380
ORDAINDU BEHARREKO LIKIDOA LÍQUIDO A PAGAR	1.595.675	1.168.875	716.868	1.053.543	447.750	436.158	733.319	808.693

(*) Sin perjuicio de los efectos que, en su caso, se deriven de la Disposición Adicional Quinta de la metodología de Cupo.
Kupoaren Metodologiako Bosgarren Xedapen Gehigarriak ezarritakotik erator litezkeen efektuei kalterik egin gabe.

ERANSKINA

Eskualdatutako eskumenen zerrenda 2007-2014 epealdian:

- **2/2009 Errege Dekretua**, urtarrilaren 9koa, **Justizia Administrazioak funtziona dezan, baliabide ekonomiko eta materialez hornitzeari dagokionez**, azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratutako zerbitzuei doazkien ondare-baliabideak areagotzekoa (BOE 2009-01-19).
- **3/2009 Errege Dekretua**, urtarrilaren 9koa, **ikerketa eta garapen zientifiko eta teknikoko nahiz berrikuntzako funtzioak** Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzekoa (BOE 2009-01-19).
- **1441/2010 Errege Dekretua**, azaroaren 5koa, **Lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak burutzen zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak** Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa (BOE 2010-11-16).
- **1442/2010, Errege Dekretua**, azaroaren 5koa, **Itsasoko Gizarte Institutuak Hezkuntza, Enplegua eta Enplegurako Lanbide-Heziketaren arloetan** zituen zereginak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegora Eskualdatzeari buruzkoa (BOE 2010-11-16).
- **891/2011 Errege Dekretua**, ekainaren 24koa, irailaren 26ko 2808/1980 eta abenduaren 30eko 3195/1980 Errege Dekretuen bitartez unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari egindako eskualdaketak osatzekoa, estatuko administrazioako zerbitzuetara atxikita dauden hainbat bitarteko euskal autonomia erkidegora eskualdatuz (**espetxeetako maisu-maistrak**) (BOE 2011-6-30).
- **892/2011 Errege Dekretua**, ekainaren 24koa, irailaren 26ko 2808/1980 eta abenduaren 30eko 3195/1980 Errege Dekretuen bitartez unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari egindako eskualdaketak osatzekoa, estatuko

administrazioko zerbitzuetara atxikita dauden hainbat bitarteko euskal autonomia erkidegora eskualdatuz (**erlijioko maisu-maistrak**) (BOE 2011-6-30).

- **893/2011 Errege Dekretua**, ekainaren 24koa, irailaren 26ko 2808/1980 Errege Dekretuaren bidez irakaskuntza-arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion eginkizun eta zerbitzuak osatzekoa, (**unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako atzerriko titulu eta ikasketak homologatu eta baliozkotzeko**) (BOE 2011-6-30)
- **894/2011 Errege Dekretua**, ekainaren 24koa, **espetze-osasunaren esparruko** funtzioak eta zerbitzuak Estatu Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeari buruzkoa (BOE 30-6-2011).
- **895/2011 Errege Dekretua**, ekainaren 24koa, **Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak** betetzen dituen Ikuskaritzako Funtzio Publikoko esparruko funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeari buruzkoa (BOE 30-6-2011).
- **896/2011 Errege Dekretua**, ekainaren 24koa, irailaren 28ko 3069/1980 Dekretuaren bitartez **jabetza intelektualari buruzko legedia betearazteko** arloan Estatuaren Administrazio Orokorretik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatutako zerbitzuak osatzekoa (BOE 2011-6-30).
- **897/2011 Errege Dekretua**, ekainaren 24koa, irailaren 28ko 3069/1980 Dekretuaren bitartez **Estatuaren titulartasuneko artxiboen kudeaketa** arloan Estatuaren Administrazio Orokorretik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatutako funtzioak eta zerbitzuak osatzekoa (BOE 2011-6-30).
- **898/2011 Errege Dekretua**, ekainaren 24koa, abenduaren 29ko 3391/1981 Errege Dekretuaren bidez nautikako eta arrantzako irakaskuntzen arloetan eta uztailaren 8ko 1544/1994 Errege Dekretuaren bidez uretako eta urpeko kirolen irakaskuntzen arloetan eskualdatutako funtzio eta zerbitzuak osatzekoa. eta, bestalde, **urpekaritza profesionalari** buruzko funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa (BOE 2011-6-30).

- **899/2011 Errege Dekretua**, ekainaren 24koa, **enplegua erregulatzeko espedienteen** arloan Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdaturiko funtzioak eta zerbitzuak osatzekoa (BOE 30-6-2011).
- **900/2011 Errege Dekretua**, ekainaren 24koa, **itsas garraioaren esparruko** funtzioak eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeari buruzkoa (BOE 30-6-2011).
- **1711/2011 Errege Dekretua**, azaroaren 18koa, **turismoaren esparruko** funtzioak eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeari buruzkoa (BOE 2011-11-25).